



LESAKAKO UDALA AYUNTAMIENTO DE LESAKA

Plaza Zaharra, 1
31770 Lesaka (Nafarroa)
Telf. 948637005
www.lesaka.eus
udala@lesaka.eus

SANFERMINAK 2023

PORTADA LEHIAKETA, HAURREI ZUZENDUA

Lesakako Udalak lehiaketa deitzen du, 2023ko Sanferminetako programaren gibelego azala aukeratzeko.

ARAUTEGIA

-Azalak: kartulina edo paper lodian aurkeztu behar dira, norberak nahi duen teknika erabiliz.

-Neurriak: 210 x 210 mm (+3mm-ko koxka);

Derrigorrez, bertan agertu behar du: **LESAKA 2023ko SANFERMINAK**

-Gaia: Norberak nahi duena, zertarako den kontutan hartuz.

-Lanok jatorrizkoak eta argitaratu gabeak izan behar dute.

-Partehartzaileak: Lesakan jaioak edo bertan erroldatuak haurrak, 6 urtetik 12 urte bitartekoak.

-Aurkezpena: lanak sobre batean sartuta aurkeztuko dira udal bulegoetan. Sobre honek eta lanak berak izenburu bat izanen dute, sobrean adieraziko dena. Sobre horren barruan bertze sobre ttiki bat itxita, eta bertan aurkezlearen izen-deiturak, helbidea eta telefonoa idatziko dira. Partehartzaile bakoitzak nahi adina lan aurkezten ahal ditu.

-Aurkezteko epea: **maiatzaren 19ko 13:00 orduak arte.**

- Aurkezten diren lan guzietan **erakusketa** bat osatuko da.

-**Herri bozketak** erabakiko du lehiaketa, eta haren erabakia apelaezina izanen da. Horretarako erakusketak irauten duen bitartean, bertan, Lesakan jaioak edo bertan erroldatuak direnak, bozketak egiteko aukera izanen dute.

-Aurkezten diren lanak Sanferminetako programan argitaratu ahal izanen dira.

-Udalaren esku geratuko da saritutako lana. Bertzeak itzuliko dira.

SARIAK

1.a..... **100 euroko bonoa** Lesakako dendetan eskolako materiala erosteko.

Sariduna programaren gibelego azalean argitaratuko da.

Lesakan, 2023ko apirilaren 27an

Akatega

